



FUNDACIÓN
CAJANAVARRA

civican

GABONAK 2020





Azaleko irudiaren egilea Beatriz Martínez de Lera da, “Lluvia de letras” du izena, eta X. Imagina CIVICAN diseinu lehiaketako finalista izan zen

CIVICAN - Nafarroako Kutxa Fundazioaren Zentro Soziokulturala

Pio XII.aren etorbidea, 2, 31008 PK Iruñea - T 948 222 444

www.fundacioncajanavarra.es

informacioncivicana@fundacioncajanavarra.es

Facebook - @civicanaFCN - @FundCajaNavarra - #ParaPersonas

DL: NA-2062-2009

4
INFORMAZIOA

- Zer da CIVICAN?
- Nola iritsi
- Orduategiak
- CIVICAN en sare sozialetan
- Jardueretan parte hartzea
- CIVICAN, leku segurua



6
KULTURA

- Recetas artísticas
- Cuentos de lluvia
- Estampa tu aventura
- Bolas sorpresa
- Minimundos
- El espíritu de la Navidad

- CIVICANeko jaiotza
- Olentzero CIVICANen
- Gabonetako pastoralak
- Felipe Carbajal "Gussy"

8
FAMILIAK



- "SALUDos bibliotecarios – diOSAlak liburutegitik" irakurketa gidaren aurkezpena
- Urteko liburuak
- Joko-TK Gabonetan... jolastu familian
- Telefonozko irakurketa



12
LIBURUTEGIA

INFORMAZIOA



ZER DA CIVICAN?

Nafarroako Kutxa Fundazioaren zentro soziokulturala da, belaunaldien arteko eta diziplina anitzeko topagune bizi bat, eta helburu du kultura eta hezkuntza bultzatzea eta aktibatzea, elkartasuna eta gizarte ekintza sustatzea, bai eta literatura, pentsamendu garaikidea eta iraunkortasun kontzientzia bultzatzen ere, Nafarroako herri-tarren parte hartze aktiboarekin.

NOLA IRITSI

CIVICAN - Pio XII.aren etorbidea, 2, 31008 PK Iruñea - T 948 222 444



Autobusez. Geltokia gertu duten lineak: 1, 4, 15, 18.
Erabil daitezkeen beste linea batzuk: 8, 9, 10, 12.



Bizikletaz. Bizikleta aparkalekua sarrera nagusian.



Autoz. Aparkaleku publiko bat hurbil.

ORDUTEGIAK

Informazio gunea - Astelehenetik larunbatera, 09:00-21:00

Liburutegia (12 urtetik gora) - Astelehenetik ostiralera, 09:00-14:00 eta 16:00-21:00. Larunbatetan, 9:00-14:00.

Haur liburutegia (3-12 urte) - Astelehenetik ostiralera, 17:00-20:00. Larunbatetan, 10:00-14:00 eta 17:00-20:00. Oporraldian, astelehenetik larunbatera, 10:00-14:00 eta 17:00-20:00.

Kafetegia - Astelehenetik ostiralera, 09:30-14:00 eta 16:00-21:00. Larunbatetan, 10:30-14:00 eta 16:00-21:00.

Abenduaren 24an eta 31n, CIVICANen ordutegia izanen da 09:00-14:00.

CIVICAN SARE SOZIALETAN

Zentroaren jarduna sare sozialetan azaldu eta partekatzen da. CIVICANek profil aktiboa du Youtube, Twitter eta Facebook-en. Gainera, www.fundacioncajanavarra.es webgunean programa, zerbitzu eta jardueri buruzko informazioa dago, bai eta Nafarroako Kutxa Fundazioaren jardunari buruzko albiste nagusiak ere. Bestalde, liburutegiak informazioa eskaintzen du www.bibliotecaspublicas.es/civican/ webgunean eta civicanlib.blogspot.com blogean.

JARDUERETAN PARTE HARTZEA

Posta elektronikoz (informacioncivican@fundacioncajanavarra.es) edo Nafarroako Kutxa Fundazioaren Linean (948 222 444) erreserbatuta, abenduaren 14tik aurrera, astelehena (09:00), edukiera osatu arte. Pertsona bakoitzak gehienez 2 erreserba egin ditzake.

HIGIENE ETA SEGURTASUN NEURRIAK

Nafarroako Kutxa Fundazioak, gaur egungo araudian ezarritako higiene eta segurtasun neurri guztiak hartu ditu. Zentroaren kontingentzia plan orokorra egin da, maskara nahitaez erabili behar da eta pertsonen artean 1,5 m-ko tarte bermatzen da. Gainera, gela guztietan hidrogel banagailuak jarri dira, eta seinaleak daude zirkulazioa ordenatzeko. CIVICANeko langileek formakuntza jaso dute erabiltzaileekin jarduteko moduari buruz, ikastaro, tailer eta jardueretan parte hartzea eta zerbitzuak erabiltzea segurua izan dadin. Esteka honetan, CIVICANen higiene eta segurtasun neurriei buruzko galdera ohikoenen (FAQak) dokumentua dago.



- > CIVICANeko jaiotza
- > Olentzero CIVICANen
- > Gabonetako pastoralak
- > Felipe Carbajal "Gussy"

KULTURA



ERAKUSKETA

CIVICANeko jaiotza

Abenduaren 12tik urtarrilaren 9ra.

> Iruñeko Jaiotzazaleen Elkartearen laguntzarekin. Elkarrekin Nafarroako Kutxa Fundazioaren eta la Caixako Gizarte Ekintzaren laguntza jasotzen du.

ERAKUSKETA

Olentzero CIVICANen

Abenduaren 12tik urtarrilaren 9ra.

> Olentzero ikazkina Gabonak iragartzeaz eta Gabon gauean haurrei opariak banatzeaz arduratzen den pertsonaia onkotea da.

KONTZERTUA

Gabonetako pastoralak

Abenduak 23, asteazkena, 19:00.

> CIVICANen Gabonetako kontzertua. Roberto Casado, Peio Berasategui eta Francisca Di Nicolak osatzen duten "Jolivet Trio" taldeak besteak beste Satie, Jolivet eta Otaolearen obrak eskainiko ditu.

KONTZERTUA

Felipe Carbajal "Gussy"

Abenduak 30, asteazkena, 19:00.

> Gussy kantautore nafarrak, kontzertu akustikoan, bere bakarkako lau lanetako abestiak joko ditu, folka, countrya eta autore kantaren arteko konposizioekin.

"El Color de la Duda" taldeko eta "Barracus" duoko kide izan ondoren, Gussyk 2015ean ekin zion bakarkako ibilbideari, eta Imposible, Nos mojaremos cuando llueve, Horizontes eta Canciones cortas para viajes largos diskoak argitaratu ditu.

Kontzertu akustiko honetan, bandak ematen dien apaindura guztia kenduko die abestiei Gussyk, biluzik joko ditu, eta ikuskizuna musikariaren eta ikusleen arteko elkarrekin musikal bihurtuko da.



FAMILIAK

- > Recetas artísticas
- > Cuentos de lluvia
- > Estampa tu aventura
- > Bolas sorpresa
- > Minimundos
- > El espíritu de la Navidad





TAILERRA

Recetas artísticas

Abenduak 22, asteartea, 18:00

> Itxaso Razkinek koordinatutako esku hartze artistikoa, 5-10 urteko haurrentzat, heldu batek lagunduta.

CIVICANen ataria familien esku jarriko da, marrazketan eta kolorearen aplikazioan sormen teknika berriak erabilita apaintzeko eta esperimintatzeko. Zentroko beiratean egingo da esku hartzea, eta jolasa erabiliko da eraikuntzako tresna gisa. Sukaldariaren errezetari jarraitu beharko zaio, haurren eta ez horren txikien irudimena garatzeko.



AHOZKO NARRAZIOA

Cuentos de lluvia

Abenduak 23, asteazkena, 18:00

> Ahozko narrazioa Belen Otxotorenarekin, 4-11 urteko haurrentzat, heldu batek lagunduta.

Conciliasueños oso agure jatorra da, euria ari duen egunetan bakarrik agertzen dena. Gau batean, gure narraztailearen gelara joan eta haren aterkietako bat zabaldu du. Gau horretan amets dibertigarri asko izan ditu gure protagonistak, euritakoan ezkutatuta zeuden ipuinak. Biharamunean, aterkia erabat hutsik dago, eta narraztaileak berriro bete beharko du, berriz erabiltzeko.

Gabonak 2020 - Civican Programa

FAMILIAK



TAILERRA

Estampa tu aventura

Abenduak 26, larunbata, 18:00

> Garazi Valluerca koordinatutako proposamen artistikoa, 5-12 urteko haurrentzat.

Pulli pinguinoak Ipar Polara iritsi behar du familia ikusteko. Istorio horretatik abiatuta, haurrek pinguinoaren abenturak islatuko dituzte estanzazio eta jolas geometrikoen bidez. Horretarako, forma geometrikoko tanpoiak sortzen ikasiko dute, irudimenari forma emateko.

TAILERRA

Bolas sorpresa

Abenduak 28, astelehena, 18:00

> Mila García koordinatutako proposamen artistikoa, 7-13 urteko haurrentzat.

Tailer honetan, haurrek miniaturazko pop up ipuin tolestu bana sortuko dute. Gabonetako bola baten barruan.

Ondoren, bola bakoitza ipuinaren arabera apaindu ahal izango dute, Gabonetako zuhaitza apaintzeko edo gehien maite dutenari oparitzeko.



TAILERRA

Minimundos

Abenduak 29, asteartea, 18:00

> Elena Erasok koordinatutako proposamen artistikoa, 4-7 urteko haurrentzat.

Neska-mutikoez irudimenezko munduak sortuz gozaten dute, figuratxoekin, panpinekin edo jostailu txikiekin. Tailer honetan irudimenezko minimundu bat sortuko dute, elur malutez, urez eta figuratxo misteriosuz betetako miniatura izoztu bat. Horrela, irudimena piztuko zaie eta istorioak kontatzeko trebetasunak garatuko dituzte, rol desberdinak hartuta.

AHOZKO NARRAZIOA

El espíritu de la Navidad (Gabonen espiritua)

Abenduak 30, asteazkena, 18:00

> Estefanía de Paz-ek proposatutako ahozko narrazioa, 4-11 urteko haurrentzat, heldu batek lagunduta.

Angelines "la pelines" Gabonen espiritua da. Ile nahasiko aingeru despistatu bat, ipuinak eta ilusioa banatzen dituen. Prestatu panderoa eta turroia, ipuinak abesten eta gabon kantak kontatzen entzuteko.



- > “SALUDos bibliotecarios – diOSAlak liburutegitik” irakurketa gidaren aurkezpena
- > Urteko liburuak
- > Joko-TK Gabonetan... jolastu familian
- > Telefonozko irakurketa

LIBURUTEGIA



AURKEZPENA

SALUDos bibliotecarios - diOSAlak liburutegitik

Abenduak 17, osteguna, 18:00

> CIVICAN liburutegiak urteko gomendioen gidaliburua aurkeztuko du, urteko argitalpen berri onenen laburpena. Adinka eta generoka taldekatutako 217 liburuk osatutako eskaintza zabala, bertan aukeratu ahal izateko irakurgai gustukoenak: ipuinak, poemak, saiakerak, komikiak, album irudidunak... Aukera paregabea hitz egiteko eta orri artean iradokizunak trukatzeko.

IRAKURKETA ERAKUSLEIHOA

Urteko liburuak

Abenduaren 18tik urtarrilaren 18ra.

> Liburutegiak urteari agur esanen dio apalak liburu onez beteta. Urtean zehar jasotako obra guztien artean interesgarrienak. Literatur eskaintza zabala, gustu eta adin guztietarako.



JOKO-TK

Gabonetan... jolastu familian

**Abenduaren 21etik
urtarrilaren 4ra.**

> Abenduaren 21etik aurrera, liburutegiak bere mahai jokoen bilduma eskainiko du mailegu zerbitzuan. Gabonetako aisialdiaz familian gozatzeko entretenimendu proposamenen katalogo zabal bat, askotariko trebetasunak probatzeko: estrategia, suertea, asmamena, abilezia, adierazkortasuna, irudimena... eta umore handia.

ADINEKOAREN ALDEKO AKORDIOA

Telefonozko irakurketa

**Abenduak 23, 28, 29 eta 30, eta urtarrilak
4, 12:00-13:00 eta 18:00-19:00
Abenduak 24 eta 31, 12:00-13:00**

> Yamaguchi liburutegiarekin lankidetzan, eta Donibane auzoko Adinekoaren aldeko Akordioaren markoan, kultura etxera eramateko zerbitzu berezia eskaintzen da, telefono bidezko elkarrizketen bidez, literaturarekin edo informazioarekin jantzita.

Hala, Gabonetan, boluntario talde batek telefonoz deituko die auzoko adinekoei, eta kontakizunak, olerkiak, aforismoak edo albisteak irakurriko dizkie.

Irakurketa saioetan parte hartzeko, 65 urte baino gehiago izan eta liburutegian izena eman behar da, bai eta testu mota gogokoena aukeratu ere. Dei bakoitzak 10-15 minutu iraungo du.



Adinekoak
JokoTK
Esperientzia
Olentzero CIVICANen
Familiak Musika
Telefonozko Irakurketa
Ahozko Narrazioa
Liburutegia
Irakurketa Gida
CIVICANeko Jaiotza
Sormena
Kultura
Irakurketa

